

BERRIGARA

79. zenbakia

JARDUN Elkartea, Bergara

1995, otsailak 10

Alzheimer: Zahartzaroko gaisotasun ezezaguna



Zure jaunartze argazkietarako

KIÑU

TXANDA HAR EZAZU

Barrenkale, 35 ☎ 76 58 05



LILURA Edertze Institutua



Argazkian Maria Eugenia Igarza eta Guadalupe Garcia

LILURAK dagoeneko banatu du Gabonetako saski ederra. Maria Eugenia Igarza izan da irabazlea eta argazkian LILURAKo Guadalupe Garcia ren eskutik saria jasotzen ikus dezakezue. Gabonak jadanik ahaztuta ditugun arren, edozein garai da ona horrelako saria jasotzeko. Maria Eugeniak adierazi digun bezala: "inoiz ez zait horrelakorik tokatu eta ilusio handia egiten dit" Zorionak eta on egin dezazuela.

TXURINGO



Jatetxea

OSINTXU ☎ 76 48 63

**ZATOZ GURE BODEGAN
DAUKAGUN SAGARDO ETA
ARDO KUPELAK PROBATZERA.**

**HONEKIN BATERA,
SAGARDOTEGIKO MENUA
DASTATZEKO AUKERA
IZANGO DUZU!!**

SAGARDOTEGI MENUA

- Makailau tortila
- Txuletak, txarrikumea, arkumea...
- Gazta eta intxaurreak

BERRIGARALDE JAUREGIA
 JUSTO Bergara
 Telefonoa eta Faxa: 76 03 97

Argitaratzailea:
 JUSTO Bergara
 Justo Bergara, 13 Bergara.
 Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

Zuzendaria:
 Justo Bergara

Erredakzioa:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Publizitate:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Argitaratzailea:
 Justo Bergara

Z E B E R R I D A ?


MIKEL USABIAGA

Haurtzaindegiko guraso bat

- Zer erabaki zenuten Seminarioko atearen arazoa konpontzeko egingandako bileran?

- Bueno, astelehenean egin genuen bilera hori eta bertan Aranzadi Ikastola, Alargunen Elkartea, Gabinete Psikopedagogikoa, Udala eta Haurtzaindegiko ordezkariak izan ginen. Guztiok argi ikusi genuen Seminarioko patioa, beste lokalekin gertatzen den moduan, bere erabiltzaileentzat zuzendu behar dela. Horrela Ikastolako errekreoko orduetan eta gauetan 10ak aldera itxeko akordioa hartu da. Honek ez du esan nahi astebukaretan kirola egiteko adibidez horren erabilpena beste jende bati ukatu behar zaionik.

- Zein sistema erabi-



liko da?

- Argi geratu da kandauarena ez dela sistemarik egokiena. Beraz, dauden sistema ezberdinak aztertuko dira tekniko baten laguntzaz eta gero guztion artean onena aukeratu dugu, ez da arazorik egongo. Udala gainera sistema horren finantziazioan laguntzeko prest azaldu da.

"Seminarioko atearen arazoa konpontzeko lehen akordioa hartu da"

I T U R R I O N E T I K

Komun publikoak egiteko proiektua aztertzen ari da Udala

Bergarako Udaleko Hirigintza Batzordea komun publikoak egiteko proiektua aztertzen ari da. Udaltxearen berritzapen lanak hasi zirenetik ez dago komun publikorik herrian eta Udalak komun horiek Komenio kalean (Galarreta zapatadenda zegoen atzekaldean) egingo den Justo Garate plazan kokatzeko asmoa du. Era berean, Plaza horretan periodikuak saltzeko kioskoa joango da etorkizunean. Plaza egiten den bitartean, Plazako kioskoa eta Bideberrin dagoena lekuz aldatzeko asmoa dago baina oraindik ez da erabaki non kokatu. Baliteke Plazakoa Ibargarai kalean eta Bideberrikoa Frontoiko monolitoaren ondoan jartzea.

E S A N D U T E

"Behin behineko gartzeleratzea oso kasu murriztueta eta, beti ere inozentzia presuntzioa kontutan izanik, gauzatu beharko litzateke. Delitu astunentzat eta auziperatuak ihes egingo duen susmo argia dagoenean"

AINHOA ALTUNA
 Kriminologoa
 EUSKADI IRRATIA

"Venezuela edota Argentinan erreza samar egin zen dirua, eta jendea gaizki ohitua zen. Horrek korrupzio beldurgarria ekarri zuen eta gaur egun gobernuan eta bankuetan, asko lur jota daude, korrupzio handia dago"

LUIS UGALDE
 Jesuita
 EUSKADI IRRATIA

"3.000 koadrotik gora egin zituen nere aitak. Leku askotan daude, kolekzio partikularretan batez ere. Nik askotan ikusten nuen pintatzen, eta batzutan berarekin joaten nintzen. Zein aukeratu nukeen? Neri egin zidana, neure erretratua"


AURELIO ARRIETA
 Simon Arrietaren seme-alabetako bat
 EUSKADI IRRATIA



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Legebiltzarren Kultura sailaren laguntza jaso du



EL REY LEON


Ostirala: 22.30.

Larunbata: 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30.

Asteartea: 19.30 (Ikuslearen eguna).



GANAR DE CUALQUIER MANERA

Igandea: 11.30.



CUMBRES BORRASCOSAS

Osteguna: 20.00.

Zinea

▼▼ Pentsa zitekeenez, **Walt Disney**ren azken filme honek ere izugarritzko arrakasta lortu du. Honetan, *Simba* leoikumearen abenturak azaltzen zaizkigu. Bere aitaren heriotzaren ondoren bere lurraldeak utzi behar izango ditu *Mufasa* bere osaba maltzuraren eraginez. Baina bere erreinua aldarrikatzera itzuliko da *Pumba*, *Timon* eta *Nala* bere lagunak edota *Rafiki* magoaren laguntzaz. **Elton John**en abestiak.

▼▼ Mundu osoan aski ezaguna den **Shaquille O'Neal** saskibaloilariak eginiko lehen filma. Hemen ere baloiarekin duen trebetasuna azalduko digu. *Pete Bell* entrenatzaileak (**Nick Nolte**) Unibertsitatean zuzentzen duen taldea gaizki dabil eta soluzioa *Neon* (**O'Neal**) ekartzea izango da. Unibertsitate ekartzea lortzen badu...

▼▼ **Juliette Binoche** (*Azul, Herida*) eta **Ralph Fiennes** (*La lista de Schindler*) aktoreek protagonizatzen dute **Emily Brontë**ren nobelan oinarritutako filma. **Peter Kosminsky** zuzenduta, *Cathy Earnshaw* eta *Heathcliff*en arteko harremana azaltzen zaigu. Hasierako amodioak mendekua piztuko du..

Deiak

▼ **Bideoa.** JARDUNEK haur-errentzat antolatutako bideo emanaldia larunbatean goizeko 11etan Kultur Etxean. Bihar, "*Lucky Luke eta Daltondarren balada*". Sarrera: 50 pezeta.

▼ **Gurutze Mujika** bergararren oleo erakusketa Nahikari tabernan.

▼ **Ikastaroa.** Linguistika praktikuko ikastaroa UNEDen, martxoaren 7tik maiatzaren 6ra arte. Argibide gehiago nahi izanez gero deitu 76 13 42 telefonora.

▼ **Eskulanak.** Izaskun Saiz eta Eurne Uribesalgoren ikasleen eskulanak Kultur Etxeko erakusaretoan. Astebukaeran 12etatik ordubietara eta 6etatik 8etara.

Ogia

▼ **Igandea 12:** Bolintxo.

GOARDIAKO FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 10:** Guallar.
- ▼ **Larunbata 11:** Estella.
- ▼ **Igandea 12:** Estella.
- ▼ **Astelehena 13:** Mozos.
- ▼ **Asteartea 14:** Camacho.
- ▼ **Asteazkena 15:** Puy.
- ▼ **Osteguna 16:** Guallar/Morales.

ARDATZA
Brikolaketa

Masterreka, 4 behea ☎ 76 18 93

- Ateak eta zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioak
- Era guztietako moldurak
 - Apalak
 - Kajoiak

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi ☎ 76 15 09

Ilustrazioak ikusgai

Haur literaturako liburuak ilustratu dituzten hainbat marrazkilariren lanen erakusketa Kultur Etxean astelehenetik aurrera


Udal Liburutegiak

ilustratzaileen erakusketa antolatu du Kultur Etxean otsailaren 13tik 17ra bitartean. Bertan haur literaturan hainbestetan ilustratu gaituzten pertsonaia ikusi eta, era berean, ilustrazio horien egileen lana hobeto ezagutzeko aukera izango da.

Marrazkilaria ezagunak

Aipatutako erakusketa honetan ondorengo egile hauen lanak izango dira ikusgai: Ruben Arozena, Angel Domínguez, Adrian Ferrero, Juan Carlos Fernández de Andres, Iñaki Garmendia, Jesus Lucas Hernandez, Erramun Landa, Belen Lucas, Gaston Majarenas, Juan Ignacio Mendizabal, Iokin Mitxelena, Elena Odriozola, Antton Olariaga, Jon Zabaleta, Aitor Hernandez Landa eta Agurtzane Villate.

Mila Agirrezabal eta Izaskun Egilleta liburute-giko langileen hitzetan, "irakurketa suspertzeko antolatutako ekintzen barruan kokatzen da erakusketa hau. Ilustra-



Jon Zabaletaren ilustrazioetako bat "Joxemeren ohelikopteroa eta kupel atomikoa" ipuinerako.

tzaileen mundu hori ezagutzera emateko asmoz egin nahi izan dugu, umeez haurren literatura hobeto ezagutu

dezaten. Testuaren eta ilustrazioaren artean oso barreman bestua dago eta are eta gehiago haur-literaturan, ma-

razkiek testuaren pareko garrantzia daukatelako".

Autoreka sailkatuta, marrazkiak paneletan jarriko dira eta marrazkiez gain egileen hainbat xehetasun ezagutu ahal izango ditugu: egileari buruzko datuak, lan egiteko era edota beren gustuak eta iritziak. Panelek batera egileen lan tresnak eta liburuak egongo dira.

Bisita gidatuak

Era berean, OHoko 3. 4. eta 5. mailako ikasleentzat bisita gidatuak izango dira eskola-orduetan. Ipuin bat kontatuko zaie ikasleei eta ondoren ipuin hori ilustratzeko aukera izango dute. Egingako marrazkiak erakusketan bertan zintzilikatuko dira.

Bestalde, publikoarentzako ordutegia ohizkoa izango da, astebarruan arratsaldeko 6etatik 9etara bitartean. Astelehenetik ostiralera bitartean, beraz, haur-literaturaren mundu berezi hori ezagutzeko aukera paregabea.

Pepelu

Ilepaindegia

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 51 62
BERGARA



zumelaga

JATETXEA

IGANDETAN ZABALIK!!

San Antonio, 5
BERGARA
☎ 76 20 21

Antzerkia non?

Aspalditik daukat antzerkira joateko ohitura, gazte gazetetik asko gustatu baitzait.

Baina azken urteotan faltan botatzen dut Bergarara antzerki-lanik ez etortzea, jaietan eta horrelakoetan bakarrik antolatzen baitira emanaldiak. Beharbada ez daukagu aretorik aproposena antzerkia ekarri ahal izateko baina pena asko ematen dit Arrasateraino joan behar izateak antzerkia ikusteko. Han askotan antolatzen dute eta areto dotorea daukate gainera. Baina Bergaran ere badira aretoak eta antzerkirako zaletasuna duen jende dexente.

Guztion izenean sarriago antzerkia ekartzea eskatu nahi nuke eta estilo ezberdinetako lanak badira, askoz hobeto. Eskerrik asko.

G. ETXEBERRIA
NAN: 72.572.786

Euskal lehengaia

Joan zen asteazkenera arte Betis taldeari bakarrik 10 gol sartu zizkioten ligan, baina asteazkenean bata bestea-ren atzetik lau gol sartu zizkioten eta nork eta Athleticek, ondo sartuta ere.

Batzurentzat bilbotarrek lau gol sartzea ezinezkoa zen, Irureta San Mameseko aulkian izan da. Hori behintzat isildu beharko dute euren iganderoko txistuekin eta ez da hori bakarrik Bilbo aldean gertatzen, badirudi Anoetan ere ahozko txistulariak gehitzen doazela.

Eta zergatik? Realak ez duelako euren eritziz futboleko jokatzeko. Baina zein taldek ematen du igandero futbol ikusizuna? agian Real Madriderik. Beste guztiek irabaztearekin konformatu behar dute. Hori gertatzen ez denean zer txistu egin behar diegu ikaragarrizko esfortzua egiten ari diren jokalariei? eta entrena-tzailearekin zer gertatzen da. Iriarte edo Irureta alemaniarrek edo italiarrak izango balira 10. partidurako txistulari horien zaratak entzun beharko lukete? eta beste bat: Luis Garcia mexikarrak Realean ezer gutxi egin zuen eta norbaitek txisturik egin al zion? ez.

Ezta gutxiago ere, bere ohorez peña bat egin zioten eta gutxi kobratzen badu ere, gol bakoitzeko opari bat ematen zioten. Zergatik ez da gauza bera gertatzen

Idiakez edo Etxeberria gazteekin? Nik garbi daukat, kanpokoak bertakoak baino gehiago baloratzen ditugulako eta kontutan izan behar dugu Realak edo Athleticek lortu dituzten garaipen baka-rrak bertako jokalariekin lortu dituztela.

P. G.
NAN: 15.384.257

Tiira biraka



◆ **Amodiozko gutunen sariak**

Asteartean arratsaldeko 7.30etan JARDUNek antolatutako "Amodiozko gutunen III. Berrigara Lehiaketa"ko sari banaketa egingo da Zabalotegiko aretoan. Bertan, Amaia Zubiriak hainbat kantu eskeiniko ditu, Asier Serrano & Band taldeak poesia errezitaldi bat eta irabazleek beren gutunak irakurriko dituzte. Irabazleak 75.000 pta.ko saria jasoko du, bigarrenak 40.000 eta herriko onenak, berriz, 25.000 pta. Irakurlearen Saria ere emango da.

◆ **"Txerra"ren epaiketa**

Asteartean Donostian izango den Jose Ramon Aiastui "Txerra" intsumisoaren kontrako epaiketara joateko autobusa izango da. Autobusa goizeko 11etan aterako da Beheko Estaziotik eta joateko interesa dutenek Arrano edota Pol-Pol tabernetan eman beharko dute izena.

JAIOTAKOAK

Asier Alberdi Aranburu
Otsailak 3

HILDAKOAK

Pantaleon Oregi Etxaniz
Otsailak 6, 72 urte

Obrak direla eta ez direla haserre Artekaleko bizilagunak

Azken aldian sarri itxi izan da kalea hainbat lan direla eta

Artekaleko bizilagun eta komertziantek beren haserrea azaldu diote azken egunotan Alkateari Artekale, Udaletxeko obrak direla eta, behin eta berriz ixten delako. Aurreko astean ere Udaletxearen atzekaldean adokina berreskuratzeko lanei hasiera eman zitzaizen eta beste hiru hilabetez kalea itxita izango da. Komertziantek izan dira kaltetuenak obren eraginez.

Beren ustetan galera ekonomikoa jasaten ari dira, kalea *bilda* aurkitzen baita eta gainera oinezkoei ere ez zaielako inongo erraztasunik ematen bertara hurbiltzeko. Zentzu horretan Udalaren taktu falta salatzen dute. San Pedroko aterpetik Artekalera doan pasabidea itxita dago eta Plazatik Artekalera dauden eskilarak ere aurreko larunbatean itxi egin ziren, Artekalekoek pasabide bat uzteko eskakizuna egin zuten arte. Bestalde, laneak dirauten bitartean gasa sartzeko eskatu diote Udalarari Artekaleko bizilagunek eta horrela egingo da.

Victoriano Gallastegi alkateak adierazi digu-



San Pedro kalean adokina jartzeko obretan ari dira egun hauetan.

nez, "obrak egin behar direnean ezinbestekoa da errepeidea moztea eta obrak hasi baino lehenago Artekaleko hainbat bizilagunekin izan nintzen eta guztia argi geratu zen. Dena den, ez ditugu Artekaleko komertziantek inondik inora kaltetu nahi. Gainera pentsatzen dugu obra horiek Artekaleren onerako izango direla, alde hori zoragarri gertuko baita".

Zaborraren arazoa konponduta

Aurretik ere Artekalekoek beren kexak azaldu

zituzten zaborrak Arruriagan edota Plazan utzi behar izateagatik. Udalarari Mankomunitatearen kamioia Arruriagatik Artekaleraino atzeraka sartzeko eskakizuna egin zioten baina Mankomunitateak hori ezinezkoa zela erantzun zuen, kalea estu samarra denez kamioiak egin behar dituen maniobrak zailak omen direlako.

Azkenean konponbide batera iritsi dira: Artekalekoek beren zaborrak La Union tabernaren ondoan utzi ditzakete eta Udalak kontrataturik daukan Garbile enpresak jasoko ditu zaborrak.



ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

◆ **Torturaren aurkako eguna astelehenean**


Bergarako Gestorak astelehenean ospatuko den Torturaren aurkako egunean parte hartzeko deitu dute. Astelehenean 19.30etan giza kate bat aterako da San Martin plazatik.

◆ **Emakumeei buruzko argazkien lehiaketa**

Gizarte Ongizaterako Udal Batzordeak, Pol-Pol Argazki Taldeak eta Emakumearen arloko ekintzetarako taldeak "Emakumeei buruzko Argazkien II. Lehiaketa" antolatu dute. Zuri-beltzeko zein koloretako argazkiak aurkeztu ahal izango dira eta landu beharreko gaia emakumea gaur egungo gizartean izango da. Lanak 30 x 40 zm.ko kartulinan aurkeztu ahal izango dira martxoaren 1era arte Bergarako Udaleko Gizarte Zerbitzuan. Lehen hirurek 20.000 pezeta, 15.000 eta 10.000 pezeta gehi trofeo bana eskuratuko dute eta herritar onenarentzat ere 10.000 pezeta eta trofeo bat izango da.

◆ **Senideak-en salaketa**

Bergarako Senideak-ek, Pantaleon Oregiren heriotza dela eta, beraren semea lokalizatzerik izan ez duela salatu du, ahalegin guztiak egin arren. Senideak-ek jakitera eman duenez, orain dela 12 egunetik ez dakite Panti non aurkitzen den. Era berean, Luis Mari Azkargorta "Kanto"ren egoera ere salatu dute. "Kanto"k 15 hilabete isolatuta daramatza eta astero 40 minutuko bisita bat besterik ez dauka. Moduloan bakarrik aurkitzen da eta 22 ordu ematen ditu zeldan.



Hego Euskal Herriko eritexe publikotako larrialdietako erabiltzaileen artean egin da inkesta.

Deba Garaiko ospitalea da kaskarrena erabiltzaileentzat

Puntuazio gutxien jaso du Eroskik egindako inkesta batean

Eroskiko Kontsumitzaileen Al-dizkariak urtarrileko alean (25. zenbakian) egindako inkestaren arabera, Arrasateko Deba Garaiko Ospitalea da herritarren baloraziorik baxuena jaso duena. Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Gipuzkoako osasun sare publikoko ospitaletan larrialdietako zerbitzuetara jo duten erabiltzaileen artean egindako inkesta honetan ondoko puntuazioa lortu du Deba Garaiko Ospitaleak: Ekipo eta instalazioak (5,97 puntu), pertsonalaren kualifikazioa (5,97), erosotasuna (6), masifikazioa (5,94), garbitasuna (6,03), jasotako tratua (6,03) eta, azkenik, janariari dagokionez 6 puntu lortu ditu. Deba Garaiko Ospitaleak 5,99ko batazbestekoa izan du eta puntuazioarik baxuena merezi izan

du ekipo eta instalazioei, pertsonalaren kualifikazioari, garbitasunari eta jasotako tratuari dagokionez.

Ekipamendua eta pertsonalaren kualifikazioa baloratzeko orduan ospitale guztiek, Deba Garaikoak izan ezik, 7ko nota gainditzen dute 9rainoko eskalan. Guztira 16 ospitale izan dira aztergai aipatutako inkesta horretan eta puntuaziorik onena Tuterako Reina Sofiak (7,62ko media), Gipuzkoako Eritetxeak (7,53) eta Hondarribiako Bidasoak (7,47) jaso dute. Mendarokoa 7. tokian geratu da (7,15) eta Zumarragakoa 12.enean (6,87).

Ekipamenduk, mediku eta erizainen kualifikazioa eta jasotako tratua ondo baloratuak eta otordukak eta masifikazioa kritikatuak izan dira.

EXLUKUN
BEREZITASUNAK
 Fraiskozuri, 6 ☎ 76 51 62
BERGARA

**A
R
R
A
N
O**



Taberna
 Kruz Gallastegi **BERGARA**

ONENA
TINTATEGIA
 Barrenkale, 29 **BERGARA**



Amnistiaren Aldeko Komiteak presoen Euskal Herriratzea aldarrikatu du behin eta berriz.

Etxaniz eta Ibabe preso bergararren omenezko astea

Hamabost urte egin dituzte Estatuko espetxe ezberdinetan

Bergarako Amnistiaren Aldeko Komiteak hainbat ekitaldi iragarri ditu Estatuko espetxeetan orain dela 15 urtetik preso dauden Iñaki Ibabe eta Jose Mari Etxanizen omenez. Etxanizi 34 urteko kartzela zigorra ezarri zioten eta Ibaberri, berriz, 32 urtekoa. 15 urte hauetan Estatuko hainbat espetxetan izan dira biak eta momentuan Etxaniz Puerto de Santamaría (Cádiz) Puerto 2an betetzen ari da kondena eta Ibabe Orensen. Senideak-ek presoen Euskal Herriratzea aldarrikatu du behin eta berriz, "legeak borrela agintzen duelako eta azken batean senideok ere kondena jasaten ari garelako. Bestalde, gauza bat da kondena betetzea eta beste bat zein baldintzatan. Giza eskubideak ez dira gaur egun kartzelatan

errespetatzen".

Datorren asterako antolatutako ekitaldien barne, Pol-Polen bergarar preso guztien eskulan erakusketa ikusgai izango da astelehenetik igandera arte, hilak 19. Ostegunerako, hilak 16, mahai-inguru bat antolatu da, GALEn kasua aztergai izango delarik. Bertan Iñigo Iruin abokatua, Iñaki Egaña idazlea, Juan Mari Olano Gestorako partaidea eta GALEk hildakoen bi senide izango dira hizlari 19.30etatik aurrera Miguel Altuna Institutuan. Ostiralean, hilak 17, erromeria iragarri da gaueko 11.30etan Pol-Pol tabernan Maixa, Itziar eta Garbiñerekin. Azkenik, igandean manifestazioa izango da herriko kaleetan eta ondoren, 20.00etan, omenaldia Plazan.

◆ Eskulan ikastaroa

JARDUN Elkarteak eskulan ikastaroa iragarri du martxotik maiatzera bitartean. Klaseak astearte eta ostegunetan izango dira, 3retatik 4 t'erdietara eta prezioa bazkideentzat 2.000 pezetakoa eta gainontzekoentzat 2.500ekoa izango da. Interesatuak JARDUNera jo dezakete.

◆ Zezenzaleak-en jaia Erresidentzian

Zezenzaleak taldeak jai bat antolatu du igandean Mizpirualde Erresidentzian. Eguerdiko 12.30etan bilera bat izango da Erresidentzian dagoen jendearekin eta ordubatean bazkaria. Bazkalostean Erresidentziako arduradunei Pazkuetakoz zezenketako koadroa emango zaie. Jarraian dantzaldia izango da.

◆ HBren Oldartzen prozesua

Herri Batasunaren Oldartzen prozesua jarraituz, bihar larunbata, hilak 11, lehen bilera egingo da Arranon 15.30etan. Udaletxeko lau urtetako balantzea eta Oldartzen eta Iratzar txostenaren aurkezpena egingo da.

◆ Rocka Pazkuetan

Pentekoste Jaietan rock jaialdiak antolatu nahi dituzten talde eta entitateei dei egiten zaie otsailaren 14an 8etan Kultur Etxean egingo den bileran parte hartzeko.

◆ BOTaren deia

BOTA taldeak greba deialdia egin die Bergarako ikastetxeteei astearterako, hilak 14. 20.00etan intsumisioen epaiketen kontrako konzentrazioa izango da Plazan.



DEBA
GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37



Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...
Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

Herria galdezka

Bergararen egoera irratian aztertu zuten Udal ordezkari, kazetari eta herritarrek

Loiola Irratiak antolatuta "Herriz herri" izeneko irрати saioa Bergaratik zuzenean egin zen joan zen zapatuan. Alberto Gorritiberearen zuzendaritzapean, Alkatea eta Udal Gobernuako bi zinegotzi, oposizioako beste bi, herriko hiru kazetari berriemate eta Miguel Altuna Institutuko hiru ikasle izan ziren Kultur Etxetik egindako saioan. Han jasotakoaren zati bat hartu eta orrialde hauetara ekarri dugu.

Irratsaioa Gorritiberearen aurkezpenarekin hasi zen. Ondoren Victoriano Gallastegi alkateak hartu zuen hitza. Udal Gobernu buruak, legealdi honetan egindakoaren azalpenak eman zituen. Sailez-sail, egin diren obren, sinatu diren hitzarmen, bultzatu diren ekimen edota antolatu diren ekitaldien berri eman zuen.

Alkatearen esposizioaren ostean, Jesus Mari Garitano (HB) eta Juan Mari Garitano (EA) oposizioako alderdietako ordezkariak hartu zuten hitza. Bai Herri Batasunako, bai Eusko Alkartasunako zinegotziak Udal Gobernuak (EAJ eta PSE-EE) legealdi honetan egindako lana eta izan duen jokabidea kritikatu zuten. HBko zinegotziak, esate baterako, "legealdi honetan burutu diren egitasmo asko ez dira oraingo gobernuarenak, aurre-

koarenak baizik" esan zion Alkateari.

Alkateak eta oposizioako ordezkariak hitz egin ondoren debateari hasiera eman zitzaion. Entzule, kazetari berriemate eta ikasleen galderen txanda heldu zen. Esanguratsuenak iruditu zaizkigun galdera eta erantzunak jaso ditugu.

Hirigintza-Obrak

• **ENTZULE BAT:** Artekalean hiru hilabete izan dugu kalea moztuta eta orain ere itxita dugu. Galdetu nahi diot alkateari ze zinegotziak esan duen Artekaleko dendariak hobe luketela herriaren behelaldeko kaleetara joango balira eta lokal berriak hartuko balituzte.

• **VICTORIANO GALLASTEGI:** Egia da Artekaleko dendariei kaltea eragin diela Udaletxeko

obrek eta baita orain eginen ari diren zoru konponketek ere. Horrela gertatu da eta ezin dezakegu ezer egin. Udalak ez du ezer Artekaleko dendarien aurka. Zinegotzirenen batek hori esan duen ala ez dakit, baina Udal Gobernuaren iritzia ez da hori, ezta gutxiagorik ere.

• **E. B.: Udaletxearen birgaitzea zenbat milioi kostako zaigu?**

• **V. G.:** Orain arte 745 milioi pzta. gastatu dira, baina barruko mobiliarioa falta da. Udaletxea zabal-tzen denean eta kostu osoa daukagunean, dossier bat egingo dugu kostu osoa zenbatera iristen den jakitera emateko eta dirua zertan gastatu den jakin dezagun. Esan nahi dut, halaber, udaletxearen birgaitze lanen kostu osoa ez duela Udalak ordainduko. Diputazioak % 50a ordainduko du. Une honetan % 42,5a ordaindu du.

• **JUAN MARI GARITANO (EA):** Udaletxearen birgaitzeari buruz nik beste datu batzuk ditut Udaleko haziendan jasoak. 785 milioi dira eta ez 745. Honi beste partida batzuk gehitu

"Errotalde Jauregian herriko kultur taldeentzat gelak jartzea proposatzen dut" Mireia Larrañaga



Udal Gobernuako ordezkariak herritarren galderak erantzun zituzten.

*Otsailaren 14ean
San Valentín...
Ez ezazu galdu
oparia erosteko
aukera*

IRUDI

Ibargarai, 2 ☎ 76 51 65

AGOITZ

Tapizdenda

San Lorentzo, 25 BERGARA
Tfnoa: 76 18 23

behar zaizkio, hain zuzen ere beste 100 milioi inguru. Honek zera esan nahi du, Udaletxearen birgaitzea 600 milioitan adjudikatu eta 700 milioitan presu- puestatu zela eta % 35eko presupuesto desfaea dago- ela. Adjudikazioarekiko, berriz, % 40ko desfasea da- go. Orain arte 207 milioi ja- so dira Diputaziotik. Beraz, gastu osoaren % 37a edo errekupe ratzen dugu.

• **E. B.: Bergaran par- ke gehiago egin behar- ko lirateke, haurrentza- ko oso jolastoki gutxi dago Bergaran.**

• V. G.: Egia da jolasto- ki askorik ez dagoela eta daudenak ez daudela ego- erarik onenetan, baina Udalak 13 milioitako pre- supuestoa du haurrentzat instalazio berriak jartzeko eta zaharkituak daudenak erretiratzeko.


• **E. B.: Nola daude Arau Subsidiarioak eta etxebizitza sozialak erai- kitzeko ze proiektu ber- ri daude?**

• V. G.: Arau Subsidia- rioei hasierako onarpena otsailean egingo den Oso- ko Bilkuran emango zaie eta gero urte honen barru- an Plenoan Udalbatzak emango dio onarpen defi- nitiboa. Bestalde, Urteaga kalean 48 etxebizitza sozial berri eraikitze ko lursaila prest daukagu.

Lana-Industrialdea

• **ALBERTO GORRITI- BERA: Herriko 3.250 lagun industriatik bizi dira. Nola dago Industri- aldearen kontua?**

• V. G.: 1994ko aben- duaren 20an sinatu zen UCEMen eta Udalaren arte- ko hitzarmena. 100.000 metro karratutik gorako lursaila industrialdea eta ekimen pribaturako. Dago- eneko jaso ditugu Indus-



Ikastetxeetako ordezkariak ere irratsaioan parte hartu zuten.

trialdearako eskari batzuk.

Gazteria

• **MIKEL ELKOROBE- REZIBAR (EGIN): Gazte- en inguruan ze politika jarraitze ko asmoa dago? Gaztetxea itxita dago eta beste herri batzuetan Gaztelekuak sortu dira.**

• V. G.: Gaztetxea itxi- ta dago baina Udalak ez zuen itxi. Nik Gaztetxe- en izenean etorri ziren bi lagunekin izan dut bilera bat orain dela egun bat- zuk, eta bi galdera kon- kretu egin zidaten. Batetik, Gaztetxea itxi zenean ber- tan geratu ziren trasteak non dauden eta bestetik

daudela Udalaren lokalak erabiltzen dituztenak eta idatzi bat prestatze ko Uda- lari lokal hori eskatuaz. Ez dugu eskaerarik jaso.

• **GORKA GANTXEGI (MIGUEL ALTUNA): Txapa Irratiari laguntasuna emateko eskatzen diot Udalari...**

• V. G.: Udalak lagun- tza ekonomikoa eman dio eta lokala utzi dio Txapari eta aurrerantzean ere la- guntze ko prest dago.

Kultura

• **MAITE SAINAGA (DE- IA): Bergaran antolatu diren ikuskizunak dire-**

tzeko asmoa daukagu.

• **JUAN ANTONIO MI- GURA (DV): Erret Minte- giari buruz hitz egin nahi nuke. Bertan UNED eta Aranzadi Ikastola ko- katuta daude baina elei- za ez da ezertarako era- biltzen.**

• V. G.: Erret Mintegia Madrileko Gobernuaren eskuetan dago. Madrileko Gobernu ko ordezkariekin gaia aztertu dugu. Konben- tzituta nago laster batean Udalaren eskuetara pasatu- ko dela baina ondo aztertu behar ko da ze baldintzatan egiten den transferentzia.

• **MIREA LARAÑAGA (MIGUEL ALTUNA): Libu- rutegia Irizar Etxera era- mateko asmoa dago. Galdetu nahi nioke Al- kateari ze asmo dagoen Errotalde Jauregiarekin. Ondo egongo litzateke bertan herriko kultur taldeentzat gelak jarriko balituzte.**

• V. G.: Une honetan ez daukagu zehaztuta zer egingo dugun, baina libu- rutegia Irizar etxera erama- teko asmoa dago, Errotalde txiki geratu baita. Zuk egindako proposamena kontutan hartuko du Udal Gobernuak.

Kaleko kartelak

• **E. B.: Orain dela ur- te pare bat, proposamen batzuk egin zion Udalari Adierazpen Askatasuna- ren Aldeko Plataformak. Harrezkero ez dugu erantzunik jaso.**

• V. G.: Udalak kartel eta publizitatearentzako arautegi bat onartuta zuen aurreko legealdian eta jen- daurrean jarrita egon zen herritarren aldetik alega- zioak jaso ahal izateko. Guk arautegi hori indarre- an jarri dugu.

"Beheko Estazioan auditoriuma eraikitze ko asmoa daukagu" Victoriano Gallastegi

lokal berri bati buruz gal- detu zidaten. Udalak Gaz- tetxean zegoen tresneria- ren inbentarioa egin zuen eta gorde egin ziren. Nik esan nien non zeuden gor- deta. Bestalde, lokalari bu- ruruz Udala prest dagoela gazteekin berba egiteko esan nien. Herrian 28 talde

la eta auditoriumik ez egotea grabe samarra da. Udalak irtenbiderik emango dio gai honi?

• V. G.: Bai, oso ardu- ratuta gaude gai horrekin eta esan dezakegu irtenbi- deak bilatzen hasi garela. Beheko Estazio inguruan auditorium berria eraiki-

Elikadura

Dietetika sukaldean

- Elikagaien edukin nutritiboa behar beste zaintzen dugu?

- Sukaldean egoki aritzea benetan garrantzitsua da, plateren itxuraz gain bere edukin nutritiboa zaindu behar delako. Janariak berez dituzten hainbat propietate nutritibo galtzen dituzte era desegoki batean gertatzen ditugunean. Hori zaindu beharra daukagu.


- Zein aholku eman go zenuke?

- Itxura zaintzeaz gain, elikagaien galera murrizteko hainbat aholku eman daitezke. Ahal denean barazkiak azalarekin gertatzea komeni da (hori bai, ondo baino hobeto garbitu ondoren), azalean baititugu barazkiaren bitamina asko eta fibra gehiena. Egostea edo frijitzea baino hobe da labean edota lurrunarekin gertatzea, bitamina eta mineralen galera murriztu egiten da eta.

Bestalde, janaria zatikatzean, ahal diren zati handienak egitea komeni da, noski, plateraren azken itxura kontutan edukita. Adibidez, hobe da patatak osorik eta azale-

rarekin egostea eta gero zatikatzea, zatiturik egostea baino. Egostean ahalik eta ur gutxien erabiltzea komeni da eta ontzi itxi batean. Era berean, egostean gelditzen den salda ez da bota behar, lehen esan dugun bezala, bertan baitaude bitamina eta mineral asko, besteak beste, salda bezala edo beste zopa batzuk gerta-

"Era desegokian gertatu ezkeru, janariak beren edukin nutritiboak galtzen dituzte"



Ahal bada gertatutakoa egunean bertan jan behar da.



BITTOR RODRIGUEZ

(Dietetika eta Giza Elikadura ikaslea)

tzeko erabili behar da.

- Gehiegi berotzeak ere eragina izango du janarietan...

- Janaria ez da behin eta berriro berotu behar, ahal bada gertatutakoa

egunean bertan jan behar da. Ez da gehiegi berotu behar, su bajaran egositako janak elikagai-galera txikiagoa izango du eta. Egosteko urari ozpina edota limoi tanta batzuk botatzeak bitaminen (beroagatik) hondatzea gutxitzen du. Ez dira barazkiak urberaketan denbora gehiegi utzi behar, batez ere aurretik txikitu baditugu.

- Bestela zelan hobetu dezakegu jandakoaren kalitatea?

- Haragia, lentejak edo burdinean aberatsak diren janak hartzen ditugunean, postrean zitriko bat hartzea da egokiena, burdinaren absorzioa hobetzen delako.

Garbantzuak, lentejak edo babak gertatzen ditugunean, arrozarekin presatzen baditugu, proteinaren kalitatea eta beraz, janariarena berarena hobetzen dugu.

Zukuak hartzerako orduan, berriz, fruitaren mamin pixka batekin hartzea komeni da (batez ere pertsona helduetan, umeetan...) fibra ez galtzeko. Ez da komeni olio behin eta berriro erabiltzea, olioaren arabera behin edo bitan (girasolioa da errezen hondatzen dena) erabiliko da. olioak berotzean kea aterra ez dezan, komenigarriak ez diren substantzia toxikoak sortzen baitira.

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
 Eguneroko janariak / Txixizotzak
 Kazolatxoak / Txabierroak
 Matxiategi, 1 Tfnoak: 76 39 53

FERNANDEZ


Oihal puskak
Oihalak
 San Antonio, 3 ☎ 76 22 93
 Ibargarai, 2 ☎ 76 53 22

MUGICA
GOXOTEGIA

 Artekale, 3 ☎ 76 10 34

- Pastelak
- Errellenoak
- Tostoiak
- Tartak

FORMAKUNTZA IKASTAROAK



IRAKASLE ESKOLA

ESKORIATZA
Irakasleen Eskola Unibertsitaria
Teknologia Berrien Departamentua

HEZITEK

• **MULTIMEDIAREN APLIKAZIOAK ENPRESAN:**

Otsailak 17, 18, 24 eta 25, martxoak 3 eta 4, apirilak 7, 8, 21 eta 22.

Ostiral eta larunbatak. 45 ordu. Matrikulak otsailaren 8tik 15era

• **KOMUNIKAZIO ENPRESARIALA ETA INSTITUZIONALA:**

Martxoak 10, 11, 17, 18, 24 eta 31, eta apirilak 1.

Ostiral eta larunbatak. 45 ordu. Matrikulak otsailaren 20tik 24ra.

• **ENPRESA ETA INSTITUZIOETAKO BOZERAMALEEN PRESTAKUNTZA:**

Maiatzak 6 eta 13. Larunbatak, 16.00etan. Matrikulak otsailaren 20tik 24ra.

• **CD-ROM-EN APLIKAZIOAK ETA ESPLOTAZIOA ENPRESAN:**

Maiatzak 12, 19 eta 20. Ostiral eta larunbatak, 15 ordu. Matrikulak otsailaren 20tik 24ra.

HEZILAN

• **3D-KO DISEINUA AUTOCAD 13-REKIN PC-REN GAINEAN:**

Martxoaren 8tik maiatzaren 12ra, astegunero. 120 ordu. Matrikulak otsailaren 20tik 24ra.

• **3D-KO ANIMAZIOA 3D-KO STUDIOREKIN PC-REN GAINEAN:**


Maiatzaren 15etik uztailaren 7ra, astegunero. 90 ordu. Matrikulak otsailaren 20tik 24ra.

• **AUTOEDIZIOA PAGE MAKER 5.0-REKIN PC-REN GAINEAN:**

Maiatzaren 29tik uztailaren 7ra, astegunero. 90 ordu. Matrikulak otsailaren 20tik 24ra.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Departamentua

EUROPAKO GIZARTE-FONDOA



Joxe Mari ETXANIZ

15 URTE BAHITURIK ESPETXEETAN

omenaldi astea



Iñaki IBABE

■ **Otsailaren 13tik 19ra - ERAKUSKETA**

Non: Pol-Poleko aretoan

Zer: Kartzelan egindako eskulanak

■ **Otsailak 16 - HITZALDIA**

Non: Miguel Altuna institutuan (Elementala)

Hizlariak:

Iñigo Iruin (abokatua)

Iñaki Egaña (Idazlea)

Juan Mari Olano (Gestoretako partaidea)

GALek hildakoen bi senide.

Gaia: GAL kasua

Ordua: 7.30etan

■ **Otsailak 17 - ERROMERIA**

Non: Pol-Pol tabernan

Nortzuk: Maixa, Itziar eta Garbiñe

Noiz: Gaueko 11.30etan

■ **Otsailak 19 - MANIFESTAZIOA**

Herriko kaleetatik zehar eta ondoren

omenaldia San Martin plazan iluntzeko 8etan.

**Bergarako Amnistiaren
Aldeko Komitea**





65 urtetik gorakoen artean du eragina Alzheimer gaisotasunak. ARTXIBOKO ARGAZKIA.

Alzheimer: XXI mendeko gaitza

Zaharren artean ugalduz doan gaisotasuna

Alzheimer gaisotasunak jota gero eta adineko jende gehiago dago. Halere gaisotasuna sendaezina da eta bere izaera bereziagatik, familiartekoen artean arazo latzak sortzen ditu. Arazo horiek hobeto eramateko Deba Garaian senitartekoek elkartzeko asmoa dute.

Alzheimer gaisotasunak nerbio-sistema hondatzen du, 65 urtetik gorako gizakumeengan du eragina (gero eta gehiago dira Alzheimer gaisoak) eta hiru fase ezberdin ditu.

Gaisotasunaren lehenengo hiru urteetan gaisoak konfusioa, angustia, eta autoestima galtzen du. Gaisotasunaren biga-

rren faseak ere 3 urte inguru irauten du eta hor gaisoak hitz egiteko zailtasunak ditu, mugikortasun aldetik ere zailtasunak ditu eta azkenik ez da gauza bere kabuz bizitzeko. Hirugarren fasean ez du inor ezagutzen, ezin du berba egin, egunean zehar konorte barik izaten da eta ezin da mugitu. Gainera, ohean iza-

ten da gaisoa eta arnasa hartzeko arazoez gain, jateko eta azaleko arazoak izaten ditu. Azken fase honetan hondamen mentala eta fisikoa oso nabarrena da.

Gaisotasun sendaezina

Alzheimer ezin da sendatu, baina gaisoa ondo zainduta egotea lor

daiteke eta horretarako beharrezkoa da gaisoa zaindu behar duenak gaitza ondo ezagutzea.

Medikuek ez dakite Alzheimer nondik datorren, baina badira faktore batzuk gaisotasuna izatea errazten dutenak. Alde batetik aurrekin familiarrak daude, bestetik intelektualki bizimodu pasiboa izan edo buruan kolpe gogorren bat jaso duten pertsonengan ere izan dira kasuak.

Gipuzkoako Alzheimer Familien Elkarteak emandako datuen arabera, gure herrialdean bost mila kasu daude. Estatu Espainiarrari dagokionez 300.000 pertsona daude gaitzak jota eta munduan estadistikek diotenez Alzheimer hildakoak eda-deten artean laugarren postuan daude.

Familia gaisoaren menpe

Isabel Ezenarrok eta Eba Alberdik familiarteko bat dute Alzheimer gaitzak jota. Biek ere arazo antzerakoak dituzte. *"Ez gaude batere lagunduta. 44 urtean lanean ibili ondoren eta Segurtasun Sozialean kotizatzen egon ondoren, ez dugu inongo laguntzarik. Segurtasun Sozialera joan eta ez dute ezer, neurologian nabiko txarto gaudela uste dut. Alzheimer dutenak ezin dira internatu eta nola osasun aldetik ondo dauden*

"Gaisoa ondo zainduta egoteko beharrezkoa da zaindu behar duenak gaitza ondo ezagutzea"

ezin dezakete ezer egin" adierazi digu Ezenarrok.

Deba Garaian ez dago Alzheimerrak jota daudenen senideen elkarerik eta horregatik Donostiara joan behar dute laguntza jasotzeko. Hamabostean behin senideak bildu egiten dira eta bata besteari laguntza ematen diote.

"Horrelako gauzak ongi daude, baina eskatzen duguna da norbaitek laguntzea kalera irtetzeko edo egunean zehar gaisoa zaintzeko. Bestela ondokook, familiarteko-ok, zoratuta bukatzen dugu. Egun osoan euren menpe egon behar baitzara. Liburu batean jartzzen zuenetz, Alzheimerrak jotako pertsona bat zaintzeko egunean 36 ordu eman behar dituzu eta hori guztiz egia da. Pijama bat jartzzen dute eta ondoren kendu eta beste bat jatzten dute. Ez dute logikarik eta 24 orduak euren menpe izan behar gara" adierazi digu Ezenarrok.

ten senitartekoei. "Hitzaldi bori-
taldian horietan informazioa emango digute, ze laguntza dauden etab. Orainarte bakoitza bere aldetik

ibili izan gara eta horrekin espero dezagun laguntza gehiago izatea. Gainera entzun dugu Eguneko Zentro bat jartzeko asmoa dagoela

Bergaran eta horrekin behintzat egunez zainduta egongo dira eta geuk ere denbora librean izan dezakegu. Bestalde, zentro horretan zerbait

Senideentzat informazioa

Datozen asteazken eta ostegunean Osasun Mentaleko Moduloak eta Eskualdeko Udaleko Gizarte Ongizateko Departamentuek, Gipuzkoako Alzheimer gaisoen senitartekoen elkartearekin batera bi hitzaldi antolatu dituzte.



Hitzaldiak Arrasateko Monterron jauregian izango dira, arratsaldeko 4retatik aurrera. Asteazkeneko hitzaldian Enrike Arriola eta Borja Inza medikuek gaisoa zaintzearen ondorioei buruz hitz egingo dute.

Hurrengo egunean eta ordu berean, Santiago Breñas Donostiako Matia zentrukoak gaisotasuna zaintzeko aspektu praktikoei buruz hitz egingo du. Ines Etxeberria, Udaleko Ongizate Zerbitzuko teknikariak adierazi digunez; "Hitzaldi hauekin informazioa ematea eta senideen artean elkartzea bultzatu nahi dugu". Alzheimerren inguruan informazio gehiago jaso nahi duenak Alzheimer Familien Elkarte-
ra jo dezake (Telefona: 42 81 84, Donostia).

Deba Garaian elkarte bat sortzeko asmoa

Zailtasun horiek gainditzeko Deba Garaian senideen elkarte bat sortzeko premia ikusten du Alberdik. "Alde batetik zerbait lortu behar baldin badugu Segurtasun Sozialetik, eta bi katu ez gabela kontutan izanda, horrela indar gehiago egin izango dugu. Beste aldetik elkarri laguntza emateko eta ez sentitzeko norbera bakarrik dagoenik".

Horretarako otsailaren 15 eta 16an Arrasaten antolatuko diren hitzaldieta-
ra joateko deia luzatzen diete Ezenarro eta Alberdik herrian Alzheimer gaisotasunak jota dituz-



Gaisotasunari buruz informazioa jasotzeko aukera izango da datorren asterako Arrasaten iragarri den bileran. ARTXIBOKO ARGAZKIAK.

Komun publikoak faltan botatzen al dituzu?



Feli Garitaonandia

57 urte, etxeoandrea

Bai, kalean komunak egon beharko lirateke, bestela tabernara sartzea besterik ez zaigu geratzen eta.



Jose Conde

65 urte, jubilatua

Bai, bai, noski, une honetan esate baterako, txizagurez nago eta tabernaren batera joan beharko naiz.



Maria Luisa Larrañaga

47 urte, etxeoandrea

Egia esan nik ez ditut inoiz erabili, baina erabili izan dituztenentzat edota bestela ere, egon beharko liratekeela uste dut.



Ibai Mendia

15 urte, ikaslea


Ez ditut faltan botatzen, lehen zeudenean ere ez nituen erabiltzen, tabernetara joaten nintzen.



Angela Sierra

35 urte, etxeoandrea


Bai faltan botatzen ditut. Kalean nagoenean eta larri baldin banago, etxera edota tabernaren batetara joaten naiz.



Carlos Lizarralde

35 urte, langilea

Bai, plaza inguruan edota gertuan egon beharko lirateke eta gainera garbi eta ondo zainduak.



GAZTELU
BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 Tfnok: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

Amets



- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak
- Zango erremolkeak
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak

Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50

AMETS TAILERRAK

Berezano auzoa OÑATI





Telefónica jakinminez

Egun hauetan Telefónica konpainia jakin egarri berdingaitzez galde eta galde ari omen zaio abonatu aukeratu zenbaiti. Askok jakina zelakoan eta umegorri errukaria ote da, bada, gure Telefónica bihotzekoa?

Erdararik eztienean ahots xamur batek zuzentzen omen du hitza ordenagailurik, ibertexa edo faxik duzun itaunduz. Asteaz zehar zenbat nazioarteko dei egiten duzun ere jakin nahi omen du.

Galdekizun kuriosorik ez du falta Telefónica kuxkuxero sudurluzeak. Eta galdebidean abantada hartuta, galdetzaila zorrotzaren sena ere erakusten badaki.

Telefono-hariaz beste aldean mintzaide duena familiaburua den ala ez, adieraz dakiola nahi omen du esaterako, Telefónica kuttunak; familiburuak irabazirik eramaten ote duen etxera, bai eta familiburuarenaz gainera, beste norbaiten -noren? familiapretaren akaso, ala familixapelaren akasoago? galdetzen dugu orain guk-soldatarik etxeratzen ote den ere aldarrika diezazozun nahi omen du.

Baina jakinkizun politena azkenik -ez haatik azken, seguruenik- azaltzen du gure Konpainia maminak: zerotik hamarrerainoko eskailera luzatu, eta bertan, eskaintzen duen zerbitzua dela eta, emango zeniokkeen nota jartzeko eskatzen dizu xalo-xalo.

Nork dauka konpainia hoberik?

Markos BALENTZIAGA



Azterketak

Azterketa garaia dela eta, momentu aproposa iruditu zait honako hau, gai honi buruz hitzegiteko. Askorentzat (gehientsuentzat ez ezateagatik) hau izango da hiztegiko hiztik gorrotagarriena.

Bi urteren buruan nire egoera erabat aldatu da. Ikasle izatetik, irakasle izatera pasatu naiz. Edo beste era batera esanda, nire lana aztertua izatetik, besteen lana aztertzea iritsi naiz. Esan beharrik ere ez dago, aldaketarekin bat, norberaren ikuspegia erabat aldatzen dela.

Sarritan pentsatu izan dut, egun baten irakasle izatera iritsiko banintz, saiatuko nintzatekeela nire irakasleek gurekin egindako akatsak ez egiten. Oraindik ere, asmo hori buruan dudala joaten naiz klasea ematera. Betidanik jakin izan dut azterketa ez dela ikaslearen jakinduria eta lana neurtzeko biderik egokiena. Ikasle batek gaia ondo ulertzen badu ere, agian ez du berak nahi bezala azaldu edo isladatuko azterketan. Hau dela eta, ebaluaketan zehar egiten duten lana eta gainontzeko ikaskideekiko duten errespetua, eta laguntza eskaintzeko duten prestutasuna kontutan hartu beharrekoak direla iruditzen zait.

Gaur egun zenbait ikastolek, ez dituzte ikasleen notak azterketetan oinarritzen. Baina honek luzaroan zenbait arazo ekar ditzake eta horien artean bat, irakasle horiek egiten duten lana eta ebaluatzeko erabili dituzten irizpide horiek baliagarriak ez izatea. Zergatik? Sistema baten barruan gaudenez, oraindik ere zenbait lege bete behar direlako. Eta pertsona horrek egindako lana eta ikasleei irakatsitako filosofiak jarraipenik izango ez duelako gerora begira.

Josune IÑARRA

GURUTZE MUJKA



ERAKUSKETA

NAHIKARI
taberna

IBARGUREN PENTSUAK

Biona pentsuen biltegia
Bioter produktoak eta haziak

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA



Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATGIA,
SELF-SERVICE-A

Barrenkale, 31

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA

Elementala gogoratzuz

Aurreko astean, **Miguel Altuna Institutuko 50. urteurrena** ospatzeko antolatutako ekitaldien barne, "**Elemental**" izenburupean bertako ikasle izandakoen mahai-ingurua izan zen. Bertan 1948 eta 1993 promozio bitarteko 12 ordezkari izan ziren eta, beste gai batzuren artean, irakasleak, euskara, 1971n neskak sartzea, grebak, jaiak edota irtenbide profesionala aztergai izan ziren oroitzapen onak eta umorea nagusitu zirelarik. Otsailerako Miguel Altuna Institutuak "**Lanbide Hezkuntza eta empresa**" izenburuko mahai-ingurua iragarri du eta bertan **Javier Retegi** Industri sailburua izango dela espero da. Oraindik ez da ekitaldi horren fetxa zehaztu.



Miguel Altuna Institutuan urtetan ikasle izandakoak mahaiaren inguruan bildu ziren joan zen astean emandako garaian ikastetxean bizi izandako anekdotak eta bestelakoak kontatzeko.



Argazkian ikusi ditzakizue JARDUNek antolatu duen gozogintza ikastaroko partaideak.

JARDUNeko gozotegia

Astlehenean hasi zen Alargunetan Jardun Elkarteak antolatu duen gozogintza ikastaroa. **Belen Azkarate** antzuolar gaztearen eskutik, bertan parte hartzen ari diren emakumeek (antzuolar bat izan ezik guztiak bergararrak) San Blas opilak, hojaldrea, euskal pastela eta beste hainbat delizia gertatzen ikasiko dute hurrengo 6 astetan. Penagarria benetan joan zen astean gertatu zituzten San Blas opilak sikiera usaindu ezin izatea. Beren gertukoak galdetu behar...

DENA
100etik
ZURE OPARIENTZAKO
Simon Arrieta, 3



LIZAR
ALTZARIAK
Dr Fleming, 5 ☎ 76 16 53

SIRIMIRI
jatetxea
PINTXO BEROAK,
EGUNEKO MENUA, KARTA.
Barrenkale, 3 ☎ 76 59 19



Alai Taldea-ko kideak, Aranzadi Ikastolako haurrak bezala, santaeskean irten ziren joan zen zapatuan.

"Santa Ageda bezpera..."

Ohiturari jarraituz, larunbatean, Santa Ageda bezperan, abestera irten ziren herriko hainbat talde goizean goizetik. Santa Agedaren omenezko kantuen Bergarako auzo eta kale gehienetan entzun ahal izan ziren eta arratsalde ere kantuan aritu ziren beste zenbait koro. Guztiek, haur eta nagusiek, ahots finak dituztela erakutsi zuten eta betiko kantak eskeini zituzten baserritar jantzita eta ohiturak agintzen duen maki-arekin. Orain batutako diru hori hainbat ekintzatarako bideratuko dute.

Zertan dihardute ba?



Aitxus Iñarra

pedagogia irakasle bergararraren "Hilketa euskal herri-kulturan" izenburuko liburua kaleratu du Iralka argitalatxeak. Hilketa aztertzeko, ipuin zaharretara jo du Iñarrak eta Azkue eta Barandiaranen ahozko ipuin eta ele zaharretan hilketa nola gauzatzen den aztertu ditu. Era berean, hilketa moduei eta hiltzaile eta biktimaren artean sexuak jokatzen duen paperari buruzko erreflexioa egiten da liburuan. Bere hitzetan, *"gebienetan hiltzen duena gizona izan obi da eta biktima, ordea, emakumea. Gizonak, bere botereari eusteko, biolentzia eraginkortzat hartzen du"*.

Mus txapeldunak

Boni Ibabek eta **Cristobal Zabaletak** irabazi zuten larunbatean **San Blaseko** Murinondo elkartean jokatutako **VII. Mus Txapelketa**, finalen Juan Mari Gisasola eta Rafael Gallastegiri irabaziaz. Hirugarren Alberto eta Toño sailkatu ziren eta laugarren postuan Jose Gabilondo eta Fernando Kapelastegi. Guztira 21 bikote aritu ziren lehian.



Irabazleek argazkian beraien atzean agertzen den bildotsa, garaikurrak eta afaria eskuratu zituzten.

LAZKANO
Oinetakoak
Barrenkale, 15
☎ 76 25 03

MUJIKA
Jantxidenda
Barrenkale, 1 Tfnoa: 76 29 91

Zatoia
Boutique
Barrenkale, 4 ☎ 76 18 14

Lourdes Bastida

Elgoibartarra izatez, Lourdes Bastida (36 urte) herriko lehen emakume udaltzaina izan genuen orain 18 urte. Hasiera nahiko gogorra egin bazitzaion ere, gaur egun inolako konplejurik gabe ari da lanean.

- Zergatik udaltzaina?
- Beste lanik ez zegoen eta...
- Eta ingurukoek zer esan zizuten?
- Familia eta lagunak harritu egin ziren. Hasieran gogorra izan zen.
- Zerbait aldatuko zenuke zure uniformean?
- Txapela kenduko nuke.
- Multa asko jartzen dituzu?
- Ez naiz gehien jartzen dutenetakoa. 5-6 bat egunero.
- Zein izaten da arrazoi nagusia?
- Debekatutako tokian aparkatzea.
- Nori jarriko zenioke multa gogorrena?
- Zaborrak behar ez den lekuan utzi edota erre kara botatzen dituenari.
- Zein da abiadura limitea herrian?
- 40 kilometro orduko.
- Txofer gizonezkoak ala emakumezkoak?



"Familiakoak eta lagunak harritu egin ziren udaltzain sartu nintzenean. Ez naiz multa asko jartzen dutenetakoa eta uniformean txapela kenduko nuke. Ez naiz estresatuta bizi. Pasiatzea eta dantzara joatea gustatzen zait"

- Diferenteak dira. Emakumeak patosagoak normalean...
- Estresatuta bizi zara?
- Orain oso lasai...
- Umore onekoa zara?
- Bai.
- Zure gorputzeko zein atal gustatzen zaizu gehien?
- Ez dakit, dana.
- Zein perfume erabiltzen duzu?
- Gio Armani.
- Idatzi dizute amodiozko gutunik?
- Zoritxarrez ez.
- Lehen musua noiz eta non?
- Aspaldi eta ez dakit non.
- Zer daramazu karteran?
- Tarjeta asko eta diru gutxi.
- Telebista programa bat?
- "Luz roja".
- Eta iragarki bat?
- Twingoarena.
- Astebukaeretan, zer?
- Etxeko lanak egin, pasiatu, lagunekin afaldu, dantzan egin...
- Sagardotegira joateko asmorik?
- Bai, ostegunean (atzo) goaz.
- Platerik gustokoena?
- Porru-pastela Hondarribiko "Rafael" jatetxean.
- Amets bat?
- Dauzkaten zor guztiak kitatzea.
- Zerk lotsatzen zaitu?
- Ezerk ere ez. Lotsa galduta daukat.

MARIA ISABEL BENITO doktorea

Medikuntza eta Zirugia lizentziaduna

MEDIKUNTZA ESTETIKOA:

- Loditasun orokorra edo lokalizatua
 - Tinkotasun eza
 - Zelulitisa
- Azalaren zahardadea
 - Zimurrak
 - Etab.

Bidekurutzeta, 46 behea-ekerra

☎ 76 52 62 (ordua eskatu)

Kirola egiteko behar den guztia

BOLINTXO

Ibargarai, 10
☎ 76 38 32

IKUSI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK

Irizar, 2 ☎ 76 53 09

ETXEBIZITZA

Garajea alokatzen da Mas-terreka kalean. ☎ 76 45 10.

Pisua salgai Osintxun. 3 milioi. ☎ 76 49 12.

Pisua salgai San Migel ka-lean. ☎ 76 02 13.

Garajea salgai Torrekuan. ☎ 76 16 68.

Pisu bat alokatzen da Ma-xiategin. ☎ 76 46 15.

Pisua salgai Koldo Elei-zalden. ☎ 76 56 90.

Pisua eta lonja salgai Osin-txun. ☎ (945) 25 19 64.

Pisua salgai Zumaian. ☎ 76 44 53/74 31 81.

Bi pisu alokatzen dira San Pedro kalean. ☎ 76 13 23.

Pisu amueblatua salgai O-sintxun. 75 m². ☎ 76 08 51.

Garajea salgai Zurradero 8an. ☎ 76 13 93.

Garajea salgai Osintxun. ☎ 76 55 97/17 27.

Etxea salgai Osintxun. ☎ 76 28 70 (eguerdiz).

Garajea salgai prezio onean. ☎ 76 48 08.

Garajea saltzen da Zurra-dero 2an. ☎ 76 12 42.

DENETARIK

Pekines txakurkumak salgai. ☎ 76 26 92.

Armairu bat erosiko nu-ke. ☎ 76 03 48 / 06 87.

Braco aleman txakurrak salgai. ☎ 76 10 79.

Strong bateria salgai. 20.000 pta. ☎ 76 32 39.

Trialeko Cota 349 moto-rra salgai. ☎ 76 18 96.

Musika bateria salgai. la berria ☎ 76 08 58.

Lada Niva (SS-AN) eta **Ford Scort** (SS-AD) ko-txeak salgai. ☎ 76 00 51.

Volkswagen Corrado kotxea salgai (SS-AG). ☎ 76 38 16 (gauetz).

Renault 19 16v. kotxea salgai (SS-AJ). 53.000 Km. ☎ 76 24 02.

Ford Fiesta SS-AD kotxea salgai. ☎ 76 46 80 (gauetz).

Reflex Minolta argazki ka-mara (7000 AS) salgai. 35-70 eta 70-120 objetiboak eta flasharekin. ☎ 76 04 15.

Sega Megadriveko jokoak salgai. 2.000 pezeta. ☎ 76 25 12.

Paseorako **bizikleta** ego-era onean salgai. 9.000 pezeta. ☎ 76 16 51.

Snowboard tabla bat (10.000 pta.) eta skiak, fi-jazioak eta botak salgai (15.000). ☎ 76 33 61.

LANA

Ingeles klaseak. ☎ 76 22 90 (Ainhua).

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Etxebizitzak garbitzen di-tut. ☎ 76 59 47 (Loli).

Ingeles Filologian lizen-tziatuak ingeles klaseak ematen ditu. ☎ 76 26 63.

BBB eta LH klaseak. ☎ 76 24 31 (Eneko).

Etxeko lanak egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 57 53 (Sonia).

Matematika eta Zientzie-tako klaseak. ☎ 76 06 50.

BBB, UBI eta **Lanbide** **Heziketako** klaseak. Baita etxez etxe. ☎ 76 18 00.

Etxeko lanak egingo ni-tuzke. ☎ 76 53 21.

Etxeko lanak egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 08 55 (Miren, gauetz).

Etxeko lanak egin edota zaharrak zainduko nituzke. ☎ 76 32 58 (Ana).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Matematika finantziario klaseak. ☎ 76 05 43.

Ingeles Filologian lizen-tziatuak ingeles klaseak ematen ditu. ☎ 76 17 36.

Euskarazko klaseak har-tuko nituzke. ☎ 76 05 97.

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 45 93.

Ordenadorez lanak pasa-tzen ditut. ☎ 76 27 59.

San Martin Osasundegia

DERMATOLOGIA
UNITATEA
Garcandia Doktora

PATOLOGIA DIGESTIBOEN
UNITATEA
Otazua Doktora

OBSTETRIZIA ETA
GINEKOLOGIA UNITATEA
Serrano Doktora

PSIKOLOGIA
UNITATEA
J.R Fernandez

ZIRUGIA
UNITATEA
Alberro Doktora

Ramon Maria Lili, 2 • Tfnoa: 76 59 39 / 72 • Faxa: 76 25 72

BONOFOTOA



M. A. ELKORRIE REZIBAR



Idoia Ortigosa

Idoia Ortigosak jaso du aste honetan BONOFOTOko saria, orain dela 2 aste egindako galdera berak asmatu baitu. Argazkian agertzen zen baserriaren izena galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **Ondartza baserria** zen. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Idoia Ortigosari** eman dizkiogu. Zorionak!!

Zein da XVII. mendeko barroko estiloko etxe ikusgarri honen izena?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri asteazken eguerdia baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara



TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	A m u l t i z o a
1. Errotagain	10	5	5	0	0	30	6	
2. Kabia	7	6	3	1	2	25	13	
3. Madura	6	5	2	2	1	15	9	
4. Bildurbarek	6	6	3	0	3	23	25	
5. Angiozar	5	6	3	1	2	26	32	
6. Arloteak	4	5	1	2	2	14	18	
7. Mongatxurra	4	5	2	0	3	13	21	
8. Ozaeta	4	6	2	0	4	11	19	
9. Bar Canalejas	3	5	1	1	3	11	16	
10. Ufala	3	5	1	1	3	14	23	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	B m u l t i z o a
1. Usoa	11	7	4	3	0	24	12	
2. Etxagi	9	7	4	1	2	32	24	
3. Pagomendi	9	7	4	1	2	23	19	
4. Arkupe	8	5	4	0	1	34	16	
5. Ogjizun	8	6	3	2	1	20	11	
6. OH Zerezos	6	4	3	0	1	13	11	
7. Revienta	4	6	1	2	3	15	31	
8. Os Jardineiros	3	6	1	1	4	9	28	
9. Uve Bikoitza	2	5	1	0	4	10	21	
10. Guadalest	2	9	1	0	8	1	8	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	C m u l t i z o a
1. Hartu Zamak	10	6	5	0	1	41	11	
2. A Ze Flaxa	10	5	5	0	0	21	10	
3. Etxenagusia	8	5	4	0	1	22	16	
4. Eri	5	6	2	1	3	16	22	
5. Nahik. Hool.	5	6	2	1	3	14	20	
6. Kriterium	4	5	2	0	3	17	14	
7. EH Biterrak	3	5	1	1	3	10	25	
8. Amozkibar	2	5	1	0	4	10	20	
9. Soropotroak	1	5	0	1	4	12	25	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	D m u l t i z o a
1. Ezinleike	9	6	4	1	1	18	14	
2. Kirolzaleak	8	4	4	0	0	27	4	
3. La Juve	7	5	3	1	1	24	31	
4. Igandekoak	6	5	3	0	2	37	20	
5. Shaktale	5	4	2	1	1	7	12	
6. Ari Ari	5	6	2	1	3	14	28	
7. Nekrofilikos	2	5	1	0	4	22	22	
8. Krai	0	6	1	0	5	12	22	
9. Const. Bergara	-2	5	1	0	4	4	12	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	E m u l t i z o a
1. Txipiron	9	5	4	1	0	24	6	
2. Pikapiedras	7	5	3	1	1	20	20	
3. Pata Negra	6	5	3	0	2	23	13	
4. Los Txupeta	5	4	2	1	1	11	8	
5. Aldoka Maldoka	5	5	1	3	1	21	20	
6. Patxaran Team	3	5	1	1	3	15	18	
7. Labegaraieta	3	6	1	1	4	23	28	
8. Paok San Juan	2	5	0	2	3	10	34	

emaitzak

Kabia-Bildurbarek **6-2**

Ozaeta-Angiozar **1-3**

Pagomendi-Revienta ... **10-4**

Etxagi-OH Zerezos **6-3**

Usoa-Kayak **5-1**

A Ze Flaxa-Kriterium **4-1**

Etxenagusia-Nahikari .. **4-2**

Amozkibar-Hartu Z. **0-5**

EH Biterrak-Eri **3-3**

Ezinleike-Shaktale **8-1**

Nekrofilik.-C. Bergara .. **2-3**

La Juve-Krai **5-4**

Igandekoak-Ari Ari **2-3**

Labegaraieta-Paok **3-2**

Aldoka-Txipiron **3-5**

Pikapiedras-Patx. T. **4-3**

partiduak

IGANDEA

Barruan

9.00: OH Zerezos-Usoa

Madura

10.00: Angiozar-Madura

Revienta

11.00: Revienta-Os Jardineiros

Errotagain

12.00: Errotagain-Kabia

Arkupe

13.00: Pagomendi-Arkupe

Kabia

16.00: Arloteak-Ozaeta

Uve Bikoitza

17.00: Uve Bikoitza-Etxagi

Bar Canalejas

18.00: Bar Canalejas-Mongatxurra

Ufala

19.00: Ufala-Bildurbarek

Mongatxurra

OHARRA:

Beltzez agertzen diren taldeek arbitratuko dituzte partiduak

komentarioa

Bigarren fasea amaitzeko hiru jardunaldi falta direnean

Errotagain taldeak irimo dirau A multzoaren sailkapeneko goreneko postuan. Partidu bat ere ez du galdu eta astebukaera honeta bigarren postuan dagoen Kabiaren aurka neurtuko ditu indarrak. Lehia polita gertatu daiteke igande eguerdikoa.

Bestalde, eta golei dagokienez, multzo guztiak kontutan hartuta gol gehien sartu dituen taldea Hartu Zamak dugu (41 gol) eta gutxien jaso dituena, berriz, Kirolzaleak (4 gol). Atezain bikaina dela erakutsi du, dudu barik, Kirolzaleak taldeko porteroak.

Igerian egiteko bost kaletan banatu da barruko pizina

Aldeko eta kontrako iritziak erabiltzaileen artean

Zeresan ugari eman du Udal Kirol Zerbitzuak barruko igerilekua bost kaletan banatzeko hartutako erabakiak. Aurreko astetik barruko igerilekura joaten diren guztiak 5 kaleetako batean sartu behar dira igerian egin edota uretan jolastu ahal izateko.


Esan bezala, neurri honen aurrean iritzi ezberdinak izan dira. Iosune Linazisoro Kirol Zerbitzuko zuzendariaren hitzetan, "*leben bi kale bakarrik zeuden markatuta eta libre geratzen ziren kaleetan batzutan nabasteak izaten ziren igerian zebilen jendearen artean. Uste dugu neurri honek egoera hobetuko duela eta jendea ohitu abala guztion onerako izango dela. Hasieran nobedadea zenez keja batzuk izan ziren baina jendea pixkanaka onartzen*

basi da eta orain ia jende guztiak onartzen duela somatzen da. Azken batean, beste herri batzuetan aspaldi egindako gauza bat egin dugu eta herri horietan ez da inolako arazorik izan. Funtzionamendu era hori erabat finkatuta dago inguruko herrietan: Arrasaten, Eibarren...".

Kartelik ez

Hasieran kale bakoitzean kartel bat jartzeko asmoa zegoen kale ezberdinen erabilera adierazteko: librea, igeriketa azkarra, igeriketa motela, ikastaroak eta igeri elkarterakoa azkena.

Iosune Linazisorok argitu digunez, "*orain arte behintzat jendea oso ondo moldatu da kartelak jarri barik eta printzipioz ez*



Barruko igerilekuak bost kaletan banatzeko jarritako kortxoak.

ditugu kartel horiek jarriko". Beraz, norberak erabaki beharko du zein igeriketa abiadura dagokion.

Igerilekuetan lanean ari diren langileen ustetan, "*kexak entzun dira bai*

baina aldeko jendea ere badago. Neska-mutikoak dira gebien kejatzen direnak, jolaserako toki gutxiago daukatelako".

Behean igerilekuetan jasotako iritzi batzuk.

Erabaki egokia dela uste duzu?



Tomas Eguren, 72 urte

"Orain hobeto dago. Lehen batzuk kasurik ere ez zieten egiten numeroei eta 1ean hasi eta bestaldean, 5ean, akabatzen zuten atzeraka igeri eginez, inori begiratzeke eta traba eginez. Hala ere bi lagun ondo ibiltzen dira kale batean baina 3 lagun gehitxo dira".



Joakin Ostolaza, 47 urte

"Lehen askoz hobeto, leku gehiago zegoen. Orain igeri egiten dakitenendako ondo dago baina guretako ez. Bakoitzak belozidade ezberdina daukagu eta ezin gara aurrekoaren atzetik ibili. Sokak ipini dituztenetik jende gutxiago dator"



Mikel Fernández, 17 urte

"Orain dagoen bezala hobeto dago. Lehen jende gutxiarekin segituan saturatzen zen eta orain pixkat ordenatuago igeri egin daiteke. Ni arratsaldean etortzen naiz normalean eta ez da inolako arazorik egoten. Gustora eta lasai egoten gara".

Kirol sariak

Joan zen ostegunean banatu ziren Kultur Etxean Udala Kirol Zerbitzuak eta BERRIGARAK antolatutako Kirol Sariak 94 lehiaketako sariak. Josune Linazisoro Udala Kirol Zerbitzuko arduradunak eta Luis Abajo kultura zinegotziak banatu zituzten sariak. Aurtengo irabazleak Amaia Samaniego (kirolaririk onena), B.K.E.ko Eskubaloi saila (kirol talderik onena) eta Don Serafin Esnaola (sari berezia) izan dira.



Don Serafin Esnaola, Jose Ramon Iturbe (B.K.E.ko Eskubaloi saila) eta Amaia Samaniego, sariak eskuetan dituztela.

Zezeaga eta Unanue Anoetako binakako txapelketako finalean



Zezeaga eta Unanue 1991n azpitxapelkun izan ziren Gasteizen.

Jose Mari Zezeaga eta Mikel Unanue gipuzkoarrek, datorren larunbatean Donostiako Anoeta frontoian jokatu den binakako txapelketa-

ko finalerako txartela lortu zuten joan zen igandean.

Zezeaga eta Unanue-ren aurkariak nortzuk izango diren Iruñeko La-

briten erabakiko da zapatu honetan. Errandonea eta Retegik, Beloki eta Salaberriaren kontra neurtuko dituzte indarrak.

Uberarra eta añorgarra 1991n azpitxapelkun geratu ziren Gasteizen jokatutako finalean Arretxe eta Bergara II.aren kontra galdu ondoren. Aurtengo txapelketa irabazteko faborito nagusiak dira.

Bestalde, zapatu honetarako Bergarako Pelotalekuan iragarri diren partiduak hauek dira: Ansoategi eta Andueza V.a, Goñi eta Astarloaren kontra; Unanue eta Aldazabal II.a, Etxaniz eta Tolosaren aurka eta Telletxea, Errasti II.aren aurka.

KIROL KARTELDEGIA

- **Futbola**
Bergara-Tolosa
Lehen errejionala.
Igandea, 16.15. Ipintza.
Bergara-Ilintxa
Lehen mailako jubenilak.
Larunbata, 16.45. Ipintza.
Bergara-Almen
2. mailako kadeteak.
Igandea, 10.00. Ipintza.
Bergara-Real Sociedad
Lehen mailako infantilak.
Igandea, 11.30. Ipintza.

- **Eskubaloia**
Bergara-Bizkor
Kadete mutilak.
Larunbata, 16.00.
Bergara-Portugalete
Senior mutilak.
Larunbata, 17.30.
Biak kiroldegian.

- **Saskibaloia**
Bergara-Aloña Mendi
Senior mutilak.
Larunbata, 19.00.
Bergara-Loiola
Jubenil neskek.
Larunbata, 12.15.
Biak kiroldegian.
Aranzadi-Aloña Mendi
Infantil mutilak.
Larunbata, 11.00.
M. Lagundia-San Viator
Infantil neskek.
Larunbata, 10.00.
Biak Mariaren Lagundian.

Atsedeen zentrua
LOKARTU
Koltxoi-denda
Orain SORALUZEN

ORTZI
erretegia
Ezkontzak, jaunartzeak, despedidak...
130 lagunentzako jantokia
☎ 76 22 68 ANGIOZAR

ZUBIETA
elektragintza
MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK
Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

Umore onian

Erretratu bi honek, oiñ ddala 35 bat urte Ondarruan etaratuak die.

"Umore-ona" soziedadeko talde baten urteroko eskursiñua, bazkaldu eta egun on bat pasatzeko asmuakin sortutakua.

Ezkerretik eskumara:

Kalian:

Jabier Lizarralde, Ondarruako hiru mutiko, Bixente Retegi, Antonio Iñarra, Joxe Ibarra, Dionixio Olabarria (soiñuduna), Inazio Madinabeitia, Iñaki Arrieta, Binixio Berasategi, Bixente Okina, Martin Arana, Pantaleon Oregi, Patxiko Lamariano.

Barkuan:

Jarritta: Joxe Ibarra, Bixente Retegi, Jabier Lizarralde, Juanito Mendinueta, Pantaleon Oregi, Luis Mari Aranes.

Zutik: Periko Seminario, Antonio Iñarra, Ramon Zabaleta.

OHARRA:

Zure erretratu zaharra argitaratuta ikustia nahi bozu, bialduizu BERRIGARAra (Kultur Etxian).

Felipe Iñarra



LØVI'S

Cristina

LØVI'S

- Emakume zein gizezkoentzako parkak..... 6.900 pzta.
- Koloretako Caroché prakak..... % 50
- Kuadrohun alkondarak..... 1.900 pzta.
- Praka bakeroak, taila solteak..... 1.900 pzta.

LØVI'S

AZKEN TXANPA!!

LØVI'S

**San Balentin eguna dela eta...
hurbil zaitez ESPALOIRA
Larunbatetik, hilak 11,
San Balentin egunera arte...
SEKULAKO PREZIOAK**

ALDASORO

- Zapatak •
- Poltsak •
- Billeterak •
- Zinturoiak •
- Osagarriak •

BERGARA PIEL

- Txaketoiak •
- Kazadorak •

Zubaizti

- Afariak astebukaeretan •
- Aurrez eskatutako bazkariak •

anezka

- Lentzeria oihalak •
- Inhaulerietarako osagarriak •

KANELA


- Altzari errustikoak •
- Dekoraziorako ideiak •

PUMUKI

- Gozokiak •
- Fruitu lehorrak •
- Urtebetetze festatarako gozoki poltsak •

Zatoz Espalora!!

**95erako IKASLEENTZAKO KANPAINA
ABANTAILAK BISTAN**



EUSKARRIA + KRISTAL GRADUATUA

7.700 pzta.

ZATOZ ETA IKUS

Zatoz orain OPTICOS ASOCIADOSera, otsailean zehar aparteko eskaintza egiten dizugu euskarri nahiz kristaletan eta gainera prezio paregabean



EUSKARRIA + KRISTAL GRADUATUA

7.700 pzta.

ZAINDU BEGIAK, IKUSIKO DUZU ALDEA

Zatoz orain OPTICOS ASOCIADOSera, ikusmenaren miaketa osoa egingo dizugu. Eta gainera, irabazten irtengo zara OPTICOS ASOCIADOSeoen profesionaltasun eta garantiarekin.



GIPUZKOAKO OPTICOS ASOCIADOS

P. Manso
optika

Irizar pasealekua, 2 BERGARA



Diru asko ala gutxi,
ez ondotik pasa, ez begiak itxi.



Sartu, ikusi...
eta komeni bazaizu erosi.



centro
hogar
MUEBLES

GRUPO



**Amuebladora
Mondragonesa**

Sartzen dena:
zeuk behar dituzun altzaria

ARRASATEKO BARIANTEAN